



FAMILIENTZAKO ARGIBIDEAK.

IKASTOLAKO SARRERAK ETA IRTEERAK.

Autobusez etortzen badira, autobusaren arduradunek sartuko dituzte umeak Ikastolara.

Autobusez ez badatoz, goizez 8:45- 8:55ak bitartean eta arratsaldez 14:45- 14:55ak bitartean Alberdiko atetik sartu ahal izango dituzue.

Haur Hezkuntzako familiek, zuen seme alabak ikasturte osoan zehar gelaraino lagundu ahal izango dituzue.

Zuen seme-alabek, kasu puntualak direla eta, ikastolatik ordutegia amaitu baino lehenago atera behar badute, idazkaritzatik sartu-irteera egingo da eta beti ere, tutoreak horren berri izan beharko du.

Goizez zein arratsaldez, umeak bi toki (ate) desberdinetatik aterako dira:

- HH3 mailako (2 Urte) eta HH4 mailako (3 urte) umeek sarrera eta irteera HHko sarrera nagusitik egingo dituzte. **Kotxez datozen ikasleen familiek geletan sartuko dira umeak jasotzera, autobuseko zaintzaileak eta umeak atera ondoren.**

- HH5 (4 urte) eta HH6 (5 urte) mailetakoko ikasleek, ordea, Albediko beste ate bat erabiliko dute irteteko, hau da, **2 urteko jolastoki ondoko atea.** Kotxez doazen 4 eta 5 urteko ikasleen gurasoek, **autobusen aterpearen bukaeran itxarongo dute** (10, 11 eta 12 autobusen ondoan). * Seme-alaba txikiak ere baldin badituzte, guraso hauek betiko tokian (orain arteko tokian) itxarongo dute, irakasleek haraino lagunduko baitituzte.

Kontuan izan, ezin izango dela jolastoki barruan sartu.

AMANTALAREN ERABILERA

Ikastolak ez du amantalak erabiltzera inor behartzen eguneroko lanean. Dena den, ikasle bakoitzak ikastolan uzteko amantala bat ekarri behar du, ikasturtean zehar egiten diren ekintza batzuetan erabiltzeko.

Bestalde, jantokian gelditzen direnek, astero beste amantala bat ekarri beharko dute.

ARROPA

Bereziki 2-3-4 urteko ikasleak badira, erraz erantzeko moduko arropak janzten saia zaitezte. Horrela, umeak berak ikasiko du janzten eta eranzten. Ez daukate zertan txandalak izan, tiranterik eta gerriko gabeko beste edozein jantzi ere izan daiteke.

Zintzilikatzen den arropetan (berokiak, jakak,...) , zinta bat jarri bahar duzue, umeak berak arropa hori eskegi ahal izateko

Bestalde, umearen arropan, ikaslearen izena jarrita ekarri behar da.

Ikastolako arropa erabiltzen denean, etxera eramango da eta garbituta ahalik eta lasterren itzultzea eskatzen dizuegu.

Psikomotrizitate eta dramatizazio saioetarako, arropa eroso, belkrodun zapatilak eta galtzerdi ez labankorrek jantzita ekarri beharko dituzte.

TXARTELA

Ikasle guztiek, egun horretarako dagokion txartela jarrita ekarri beharko dute, autobusez zein kotxez etortzen direnak.

GAIXOTASUNAK

Alergia kasuetan, irakasleari jakinarazi mesedez.

Gaixotasunen inguruan Ikastolako Barne Araudian adostu zena gogoratu nahi dizuegu. (Barne Araudiko 134. orrialdean)

Ezingo da ikastolan egon edo sartu ondokoak dituen pertsona:

- a) Higiene-eza adierazten badu .
- b) Parasitorik badu (zorriak, bartzak, etab.)
- c) Sukarra badu .
- d) Beherakoa badu .
- e) Azaleko negalak baditu, medikuaren txostena bidez kutsakorrak ez direla adierazten ez bada. Azaleko gaixotasun kronikoen kasuan, egoera hori egiaztatzen duen medikuaren txostenarekin nahikoa da.
- f) Konjuntibitisa badu .
- g) Heste parasitosisia (zizareak...) badu .
- h) Botaka egiten badu behin eta berriz .
- i) Eztula handia badu edo tratamendurik ez duen mukien jariatze zornetsua badu. Kasu horretan medikuaren egiaztageria beharko da, tratamenduan dagoela eta kutsakorra ez dela adieraztekoa.

Aurreko atalean jaso ez den beste gaixotasunen kasuan, Ikastolara berriz etortzeko medikuaren baimena beharko da. “

IRAKASLEAREKIN BILERAK

Ikasturte hasieran tutorearekin gelako bilera bat egongo da eta HH3 (2 urte) eta HH6 (5 urte) ikasturte amaierako bilera ere burutuko da, zikloari amaiera emateko.

Ikasturtean zehar tutorearekin bi elkarrizketa pertsonalak burutuko dira, elkarrizketa hauetan , umea ezin izango da aurrean egon. Eguna finkatzeko, tutorea zuekin harremanetan jarriko da. Hala ere zuek tutorearekin komunikatzeko premia baduzue, era ezberdinak erabili ditzazkeue: posta elektronikoa eta telefonoa (945 011975) .

ZERBITZUAK ERABILTZEKO ARAUAK

Edozein arrazoa dela ere, seme-alaben bila etorri behar baduzue, mesedez irakasleari eta zerbitzuen arduradunari abisua eman beharko diezue. Beraz, aldaketaren berri ez badugu, ohikoa dena mantenduko da.

Zerbitzuetan aldaketak egitekotan, egun bat lehenago egin beharko dira. Egunean bertan abisu garrantzitsuren bat baldin baduzue, postaz ez komunikatu, tutoreek ez baitute goizean zehar posta zabaltzen

HAMARRETAKOA ETA URTEBETETZEAK

Janari osasuntsuaren kontsumoa bultzatzeko asmoz eta azken urte hauetan sortzen ari diren alergia kasuak areagotzen ari direla ikusita , **umeek ezin izango dute jateko EZER ekarri ikastolara.**

Eguneroko hamarretakoa egiteko, umei fruta eta gailetak banatuko dizkiegu baina, HHn dauzkagun ikasle guztiek jan ahal izateko , ondorengo motakoak izan beharko dira: **GULLON markako MARIA SIN GLUTEN, CRAKERS SIN GLUTEN ETA DIBUS SHARKIES. Beste mota batekoak izatekotan, ez ditugu banatuko.**

Umeek gaileten abisua etxera eramaterakoan, mota honetako 4 edo 5 pakete ekartzea eskatzen dizuegu eta fruta abisua eramaterakoan, aste horretan gelako ikaskideekin konpatitzeko nahikorik.

Bide batez gogoratzen dizuegu, **umeek urtebetetzetan ezin izango dutela ikastolara EZER ekarri (ez janaririk , ez oparrik)**